



## 7 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

**Alarma Egoeraren 7. eguna. 2020ko martxoaren 22a, ostirala.**

**Osteguna hilak 21ko Kudeaketa / Ekintzak**

### ERAKUNDEEI EGINDAKO ESKAERAK ETA DAUDEN BEHARRAK

Badirudi, zoritxarrez, kale egoeran dauden pertsonentzako udalak prestatutako erabakia, **Atano pilotalekuan 87 lagun elkartzea, ez dela egokiena izan.** Bertan konfinatuta dauden pertsona askorengandik iristen zaigun informazioak hau berresten digu, ez baitaude batere gustura bizitzen ari diren egoerarekin, ezta *Atanon* dagoen masifikazioa murrizteko beste espazioren bat gaitzeko udalaren erabakiarekin ere, kontuan hartuta horrelako zerbait aurreikusteko modukoa zela, 5. buletinean aurreratu genuen bezala:

*"aurreratu nahi dugu zaila iruditzen zaigula herritar guztientzat planteatu diren osasun eta portaera jarraibideak betetzea hain pertsona kopuru handia elkartzean. Hain talde ugariaren harreman-dinamika behar bezala kudeatu ahal izatea, non bakarka eta entzierro-testuinguru batean egin behar baitute. Infekzio bat gertatuz gero, kolektibo osoa koarentenan jartzera behartzen baita..."* esan behar dugu, gogorra badirudi ere, plangintza egin dutenen profesionaltasuna ez duela oso leku onean uzten.

Espero dezagun, abian jarriko den errekurtsio berriari begira, **profesional nahikoa kontratatzea**, horiek baitira zeregin horri bermeekin aurre egin ahal izateko ezinbesteko tresna. Gauza bera masifikazioa saihestea ahalbidetuko duten baliabideen kasuan. Aterpetxeak, adibidez, masifikazioa saihesteko irtenbidea dira. Zentzu horretan deigarria da Zarauzko aterpetxearen eskaintza erabili ez izana eta, aldiz, jendea Donostiako baliabideetara bideratzea.

Herenegun eman genuen informazioa, **Errenteriako udal aterpetxea** irekitzeari buruz, zehaztu egin behar da. 53 pertsona hartzeko gaitasuna duen arren, 13 baino ez hartzea erabaki dute eta udalerriko pertsoneri mugatzea. Tamalgarria da ikuspegi murriz hori. Zabaldu samar dagoen ikuspegia da, kale egoeran dauden pertsonen erantzukizun handiena hiriburuari egozten diona, zalantzakoa izanik "hiriburukoak" direla esatea. Foru erakundeak gai honen inguruan zeresana baduela uste dugu.

**Baliabide horietan dauden pertsonetik esku-hartzea** indartzeko proposamen bat egin genuen atzo. Konfinamendua aprobetxatzea pertsona hauen ezaugarriei eta premiei buruzko ezagutzan sakontzeko, honela etorkizuneko esku-hartzea hobetu ahal izateko. Ezin dugu ezer aurreratu honi buruz, ez baitugu inolako erantzunik izan proposamen zehatza helarazi genion udal-korporazioaren aldetik. Baliteke saturazio arazo bat izatea, eta itxarotea derrigorrezkoa izatea. Ikusiko dugu nola eboluzionatzen duen gai honek.

**Elikagaiak: udaletxea ez da ageri, eta ez dugu ezer espero.**

Udalak ez dio erantzun oraindik ere pertsona askok duten elikagaien beharrari. Kopurua bere gain hartzeko modukoa da, baina publiko egin genuenetik astebete igaro den arren, ez dugu



## 7 BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

horri buruzko erantzun positiborik jaso. Honek, gabezia horiek, nahitaez, saretik bete behar ditugula konbentziarazten gaitu, gure esku dagoen neurrian. Horregatik, **garrantzitsua da auzo bakoitzean zeregin horretan lagun dezaketen boluntarioak egotea.**

**Komunikazioa.** *Berrian* argitaratutako erreportajearen parte hartu dugu.

6. buletina sarean zabaldu da eta komunikabideei helarazi zaie.

### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Une honetan, premiazkoena, behar duen jendea dagoen auzoetan elikagaien banaketa egitea da. Eta dauden auzoetan bertan egitea, orain arte bezala, SOS Arrazakeriaren bulegora joan beharrik izan ez dezaten; joan-etorri hori gero eta arazotsuagoa izaten ari baita. Supermerkatura erosketak egitera joaten diren gainerako herritarren joan-etorriekin parekatu daiteke. **Horregatik da hain garrantzitsua, auzoan bertan, boluntarioak egotea, banaketaz arduratzeko.** Zeregina erraza da. Sareak elikagaiak behar dituzten pertsonen kokapena dugu, eta elikagai hauek lortzeaz eta entregatu beharreko poltsak prestatzeaz arduratzen gara. Boluntarioak dira, auzoko leku jakin batean (lekurik egokiena zein den adostu beharko litzateke), ordu-tarte txiki batean (15') eta adosten diren egunetan, poltsak pertsona horiei ematen dizkietenak, izen eta abizenekin identifikatuz. Ez dira pertsona asko auzoko. Oso maneigarria da. Horrek gosea pasako duten pertsoneri elikagaiak ematea bideragarri egingo liguke.

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionez, atzoko ekarpenekin, dagoeneko 119 dira sei egunetan 6.687 € sartu dituzten pertsonak.

Ostalaritza laguntzaren arloan, Gandarias eta Pandoraren eguneroko ekarpenak bere horretan darrai.

Oraindik ere mugikorrek behar ditugu.

Eskerrik asko arnasa hartu ahal izateko ezinbestekoa den herritarren inplikazio gero eta handiago honengatik.

### Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

**Kontaktua:** redacogidaciudadana@gmail.com 672 95 20 66 / 675 71 53 15

**Ekarpenak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**